

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### Herrera ikastetxerako sarbideak errazteko mozketak izango dira Ederrena kalean

*Mozketak ikasturtean zehar egingo dira, astelehenetik ostiralera,  
8:50etik 9:05era eta 15:50etik 16:10era*

Ederrena kalea 15 minutuz itxita egongo da Herrera Ikastolan sartzeko eta irteteko orduetan, ikasleen segurtasuna bermatzeko, COVID-19ak sortu dituen behar berrien testuinguruan.

Mozketa hurrengo astelehenean, urriak 19, hasiko da Peruene kaleko bidegurutzetik ikastetxeraino, astelehenetik ostiralera, 8:50etik 9:05era eta 15:50etik 16:10era ikasturte osoan.

Mugikortasun sailak eta ikastetxeak, halaber, herritarren laguntza eskatu eta eskertzen dute, haurren segurtasuna bermatzeko.

